



Urretxuko udala

# URRETXUKO GIZARTE ZERBITZUAK

Prestazio eta zerbitzuen gida



# 1. GIZARTE ZERBITZUAK

Gizarte Zerbitzuak herri osoarentzako udal zerbitzuak dira. Bereziki, beharrak dituzten pertsoneri eta bizitza-proiektua modu autonomoan garatzeko zailtasunak dituzten pertsona, familia eta taldeei zuzendurik daude.



## **NON GAUDE**

Urretxuko Udala  
Iparragirre kalea 20, Urretxu  
(Sarrera Abenidatik).



## **HITZORDU ESKAERA**

Aldez aurretik ordua eskatu zure  
interesekoa den edozein gairi  
buruz hitz egiteko. Hitzordua  
telefonoz, posta elektronikoa  
bidez edo bertara etorrira egin  
dezakezu.



## **ORDUTEGIA**

Astelehenetik ostiralera  
07:30etik 15:00etara  
Telefonoa: 943 03 80 83  
Helbide elektronikoa:  
[gizadmi.ur@urretxu.eus](mailto:gizadmi.ur@urretxu.eus)

## 2. ZER ESKAINTZEN DA

Ondorengoak dira funtzio nagusietako batzuk:

- Dauden gizarte baliabideen berri eman eta orientabideak eskaintzea.
- Diagnostiko bidez eskaeren inguruko balorazioa egitea.
- Gizarte eta familia arloko esku-hartze proiektuak prestatu eta burutzea.
- Hainbat prestazio eta gizarte baliabideren tramitazioa kudeatzea.
- Prebentzio eta gizarteratze proiektu eta zerbitzuak kudeatzea.

INFORMAZIOA

Balorazioa eta  
esku-hartze proiektuak

Baliabideen eta Zerbitzuen  
tramitazio eta kudeaketa

# 3. PRESTAZIO EKONOMIKOAK



## a. GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK

Gizarte bazterkeria ekiditeko edo bazterkeria bizi dutenei egoera horretatik irteten laguntzeko diru laguntzak dira, gastu zehatz batzuk ordaintzeko erabiliko direnak.

> %65ko EZGAITASUNA duten PERTSONAK

> 65 URTEKO PERTSONAK

## b. KOTIZATU GABEKO PENTSIOAK

Gutxienekoa bermatzeko laguntza da. Bi modalitate daude:

- **Kotizatu Gabekoen Pentsioa ezintasunagatik**  
18 eta 65 urte bitarteko pertsonentzat, baldin eta gutxienez, %65eko ezgaitasuna badute.
- **Kotizatu Gabekoen Pentsioa erretiroagatik**  
65 urtetik gorako pertsonentzat, betiere, pentsioen kontribuzio sisteman sartu ezin badute.

## c. BANAKAKO LAGUNTZAK

Gastu zehatzei, ohiko edo ez ohikoei, aurre egiteko baliabide eskasak dituzten familiei edo pertsoneri zuzenduak daude. Diru-laguntza honen bitartez, Udalak sistema publikoek babesten ez dituzten beharrei aurre egiten die.



# 4. MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONAK


## a. MENDEKOTASUN BALORAZIOA

Autonomia fisikoa, zentzumenarena, psikikoa edo adimen-autonomiaren galera edo faltarekin lotutako arrazoiengatik mendekotasun egoeran aurkitzen diren eta laguntza garrantzitsuak behar dituzten pertsonen zuzenduta dago. Balorazio honek mendekotasun maila zehazten du eta pertsona bakoitzak behar dituen zaintzak identifikatzen ditu.



## b. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA

Etkez etxeko laguntza zerbitzua norbere autonomia eta segurtasuna mugatua dutenentzat, eta ohiko jarduerak egin ezin dituztenentzat da. Etxean bertan ematen den zerbitzua da, ohiko inguruan integratzen eta egoten laguntzeko.



## c. ZAINTZARAKO DIRU LAGUNTZAK

### • Familia ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa

Familiako kide bat mendekotasuna duen pertsonarekin bizi denean eta hura zaintzen duenean eska daiteke.

### • Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa

Mendekotasuna duen pertsonak bera zaintzeko langile edo enpresa bat kontratatzen duenean eska daiteke.

### • Zerbitzuari lotutako laguntza ekonomikoa

Mendeko pertsonak eguneko zentroan edo egoitzan zerbitzuak modu pribatuan jasotzen dituztenean eska daiteke.



#### d. EGUNEKO ZENTROA

Adineko pertsonentzako eguneko arreta eskaintzen du. Helburu nagusia adineko pertsonak ahalik eta denbora gehienez euren inguruan mantentzea da; horretarako euren benetako beharrei erantzungo dien arreta orokorra eskainiko zaie. Eguneko Zentroan dauden zerbitzuak: jantokia, osasun-azterketa, podologia, ile-apainketa, garbiketa eta arreta eta zaintza.



#### e. EGOITZAK

Zentro hauetan adineko ezinduei ostatua, mantenua eta zaintza orokorra eta jarraitua eskaintzen zaie. Honako zerbitzu hauek eskaintzen dituzte: ostatu zerbitzua, zaintza pertsonaleko eta banakako laguntzako zerbitzua, mediku eta erizaintza zerbitzuak eta zerbitzu psikosozialak.



#### f. ALDI BATERAKO EGONALDIAK

Zerbitzu honen bitartez egoitza batean bizitzeko aukera ematen zaie etxean bizi ohi diren adineko mendeko pertsoneri, hainbat arrazoi direla-eta, denboraldi jakin batez, etxean bizi ezin dutenean, zaintzarik jaso ezin dutelako.

### g. SENDIAN PROGRAMA

Sendian programaren helburua hirukoitza da: mendeko pertsonak zaintzen dituzten pertsoneri laguntzea, haien karga pertsonala arintzea eta familiako elkarbizitza ez hondatzeko babesa eskaintzea.



### h. TELELAGUNTZA

Bakarrik bizi diren pertsoneri eta euren senideei segurtasuna eta berehalako laguntza eskaintzeko zerbitzu bat da. Tresna honek deiak egiteko sakagailu bat dauka. Deia jasotzen denean, arazoa konpon dezakeen pertsona edo zerbitzuarekin harremanetan jartzen da (familia, medikua, anbulantzia...).



### i. LAGUNTZA TEKNIKOAK

Laguntza hauek ezintasuna edo mendekotasuna duten pertsoneri zuzenduak daude.

Pertsonaren urritasunak eta mendekotasuna prebenitzeko, konpentsatzeko, arintzeko edo neutralizatzeke egindako edozein produktu, tresna, ekipo eta sistemak dira laguntza teknikoak.




# 5. EZGAITASUNA DUTEN PERTSONAK



## a. BALORAZIOA

Ezgaitasun edo minusbaliotasun mailaren kalifikazioan ondorengoak baloratzen dira:


- Zer nolako ezintasun maila duen.
- Eguneroko oinarrizko gauzak egiteko beste pertsona baten beharra duen.
- Garraio publiko kolektiboa erabiltzeko zailtasunik duen (mugikortasun baremoa).



## b. ORIENTAZIOA

Ezgaituen beharren arabera baliabide espezializatu eta komunitarioetarako orientazioa:

- Egoitza zerbitzu espezializatuak.
- Enplegu eta bestelako jarduera okupazionalak.
- Eguneko jarduera.
- Laguntza goiztiarra.
- Aholkulari baten laguntza bere gauzak egin behar dituzenean, edota ingurukoekin harremanetan egon behar duenean.



## c. FAMILIA GIROAN MOLDATZEKO BALIABIDEAK

Kolektibo honi zuzenduriko baliabideak dira, bere ezaugarri propioekin, ondorengo hauek ere: Telelaguntza / Laguntza teknikoak / Etxez etxeko laguntza / Eguneko Zentroak...




# 6. FAMILIAK, HAURRAK ETA GAZTEAK

## a. ESKU-HARTZE FAMILIARREKO PROGRAMA

Programa honen helburua familiei abilezia, gaitasun eta baliabide batzuk ematea da, beren kargura dauden ume eta nerabeen oinarrizko premiak betetzeko.

Beren kargura arrisku edo babesgabetasun arin edo ertainean dauden adin txikikoak dituzten familiei zuzendua dago.



## b. INGURU IREKIKO HEZKUNTZA PROGRAMA

Programa honen helburua arrisku egoeran dauden haur eta nerabeak testuinguru zein baliabide normalizatu eta egokituan integratzea da.



## c. PREBENTZIO PROGRAMAK IKASTETXEETAN

Ikastetxeekin elkarlanean, zenbait programa garatzen dira eskoletan osasun hezkuntza eta baloreak jorrazteko. Programa horiek ikasleengan jarrerak, baloreak eta prebentzio gaitasunak sustatzeko dira.



# 7. GENERO INDARKERIA JASAN DUTENEI ZUZENDUTAKO ARRETA ZERBITZUA



## a. LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA

Zerbitzu honen helburua emakumeei laguntzea da, genero-indarkeria edota askatasun sexualaren aurkako egoera bat bizi izanagatik, izan ditzaketen arazoak gainditzen laguntzeko. Eraso egin duen gizonari ere eskaintzen zaio laguntza psikologikoa.

## b. LAGUNTZA JURIDIKOA

Doako kontsulta juridiko bat da, gai hauetan orientatzeko: Banantze prozesua, umeen zaintza, ondarea, ordainezko pentsioa...



## c. LAGUNTZA EKONOMIKOA

Laguntza ekonomiko hau, genero-indarkeriaren biktima izanik, nahikoa baliabide ekonomiko ez duten, eta lana topatzeko zailtasunak dituzten emakumeei zuzendua dago. Helburua emakume horiek gutxieneko baliabide batzuk izatea da, erasotzailearengandik banandu ahal izateko eta une horretan lan munduan sartzeko dituzten zailtasunei aurre egiteko denbora eta bitartekoak izan ditzaten.



## d. LARRIALDIKO EDO BABESPEKO ETXEBIZITZA

Tratu txarrak jasan izanaren ondorioz ohiko bizilekua aldatzera behartuta dauden emakumeei, edo haien mende dauden pertsoneri (seme-alabei,...) aldi baterako bizitokia eskaintzen zaie.

# 8. IMMIGRAZIO ZERBITZUA

## a. HARRERA ESKOLA

Kanpotik Urretxura bizitzera iritsi berri direnentzat harrera ikastaroa. Ikastaro honen helburua etorri berriek herritar gisa dauzkaten eskubide eta betebeharren berri ematea da, herriko baliabide, zerbitzu, eta kultura ezagutzearekin batera. Ondorengo edukiak lantzen dira: Herriko baliabideak (kultura, kirola, aisialdia, enplegua, formakuntza, eta abar), atzerriartasuna, lan arloko eskubideak, Gizarte Zerbitzuak, Osasun sistema, zaborraren birziklapena eta gizon eta emakumeen arteko parekidetasuna.



## b. AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Gipuzkoako SOS Arrazakeriarekin hitzartutako akordioaren bitartez, orientazio juridiko zerbitzua eskaintzen da Beasainen duten bulegoan.



## c. SENTSIBILIZAZIO EKINTZAK

Urtean zehar kultur aniztasunaren inguruan sentsibilizatzekeo hainbat ekitaldi antolatzen dira: Kulturen Azoka, Bizilagunak programa etab.



# 9. ELKARTE SOZIALAK ETA GARAPENERAKO LANKIDETZA

## a. ELKARTEEI DIRU LAGUNTZAK

Diru-laguntza hauen bitartez, elkarteen funtzionamendua, zein elkarte-jarduerako kolektiboek zuzendutako programen edota zerbitzuen garapena finantza daiteke.

## b. NAZIOARTEKO GARAPENERAKO DIRU LAGUNTZAK

Deialdi honen helburua garapen bidean diren herrialdeetan lankidetzaren proiektuetarako diru-laguntzak ematea da. Gobernu kanpoko erakundeei eta garapen bidean diren herrialdeetan lan egiten duten elkartei zuzenduak daude laguntza hauek, lan egiten duten herrialdeko populazioen ekonomia- eta gizarte-garapenerako premiei erantzuteko.

## c. LARRIALDIETARAKO DIRU LAGUNTZAK

Atzerrian gertatzen diren ezbeharrei aurre egiteko diru-laguntzak dira. Adibidez: uholdeak, lurrikarak edo/eta gerrak.

## d. KOOPERANTEENTZAKO BEKAK

Garapen bidean dauden herrialdeetan bolondres gisa lan egitera joateko asmoa duten urretxuarrei zuzendutako diru-laguntzak dira.

